

azken portuko tabernan • jon martin

NORTASUN AGIRIA

Donostian jaio nintzen, 1983ko martxoaren 11n, eta bertan bizi naiz gaur egun ere. Bidebietan ikasi dut nire bizitza guztian eta aurten batxilergoaren azken urtea betetzen ari naiz. Urtebete soilik daramat moda munduan, eta aurten Miss Gipuzkoa lehiaketara aurkeztea erabaki dut, mundu hura gertutik ezagutzeko. Neska alaia eta arduratsua naiz.

Janirak nahiago du barruko edertasuna kanpoko baino, edertasuna ezin baita neurtu. Kostaldeko kafetegi batean, ur botilatxoa ondoan, Janira Acosta Miss Gipuzkoa hautatu berriak ez dio irribarre egiteari utzi elkarrizketa guztian. Halako batean, Kontxako badia jelskor jarri dela iruditut zait.

■ Espero al zenuen Miss Gipuzkoa izatea?

Ez. Lehenengoz aurkeztu naiz sariketa batera eta urtero jende asko aurkezten da honetara eta oso zail ikusten nuen. Finallean hamabost neskak soilik sartu behar zuten eta bertarako sailkatu izanarekin pozik nengoen. Hori zen nire helburua, gisa horretako final batean egotean zer sentitzen zen jakitea. Gainera, aurkeztu ziren guztiak oso lirainak ziren. Txikitatik pasarella gustuko izan dudana arren, urtebete besterik ez da igaro agentzia batean sartu nintzenetik, eta esperientzia oso

garrantzitsua da sariketa hauetan. Eder-tasuna ez da dena; besteak beste, ibiltzen ere jakin behar da.

■ Zertan aldatu da zure bizitza Miss Gipuzkoa zarenetik?

Oraindik ez da askorik aldatu. Lagunek irabazi dudala gogoratzen didate, baina nire bizitza apenas aldatu den. Jendeak ere kalean ez nau ezagutzen gehienetan, nahiz eta bat edo beste nabaritzen dudana atzetik marmarka. Nigan zer edo zer aldatu dela sumatu dut, zoriontsu naiz eta harro nago. Nahi dudana lor dezakedala ikasten lagundu dit, baina horrek ez nau aldatuko. Oraindik gaztea naiz, ikasten nabil eta, aurten irabazi izanagatik, ez dut ikasketak utzi nahi. Argi dut modelo izateak gazte naizen artean soilik balio diezadakeela, gero akabo!

■ Modelo izateak gauza asko egitea eragotziko dizu. Gogorra al da?

Ez da oso gogorra, baina gorputza zaindu egin behar da. Gimnasiotara sarritan joaten naiz, aerobik egitera. Bestalde, azala zaindu beharra daukat, astean hiru-tan edo ukenduak ematen ditut. Jendeak usteko du ez dugula jaten, baina nik denetarik jaten dut. Hori bai, otorduetan soilik jaten saiatzen naiz eta gozokirik ez jaten. Ur asko edaten dut, ur botilatxo bat daramat beti aldean. Batzuetan lagunekin ateratzea ere ez dizu uzten modelo izateak. Ni, esaterako, aste honetan ez naiz atera, zaindu behar nuelako; azalean kremak eman, ondo orraztu, makillajea...

■ Gauza guztiek bezala, alde onak eta txarrak izango ditu ederra izateak, ezta?

Bai. Alde batetik, modaren edo zinemaren munduan sartzeko, ezinbesteko baldintza da edertasuna; eta, ligatu ere, gehiago ligatu dezakezu. Niri pasarelak

bat-batean

- **Modelo bat?** Cindy Crawford.
- **Helburu bat?** Bizitzan norbait izan.
- **Muga bat?** Ez dut mugarik; ahal dudana lekuraino joango naiz.
- **Bertute bat?** Oso irribarretsua naiz.
- **Akats bat?** Egoskorkeria.
- **Desio bat?** Zoriontsua izatea.
- **Damu bat?** Moda munduan lehenago sartu ez izana.

eman dizkidan gauza onen artean konfiantza dago, bizitza honetan nor izatera hel nintekeela ikasi dut. Modelo izateak badiu alde txarrak ere; jende gaizto ugari dago munduan eta kritikatu egiten zaituzte. Neskek batez ere. Oso gaiztoak gara. Inbidia tarteko dagoenean oso gauza txarrak egin ditzakegu. Mutilekin ere dena ez da errazago, batzuetan oso nekagarriak baitira. Modelo izateak daukan alde txarretako bat takoiak dira. Jadanik eramaten ohituta nago, baina gogoratzen dut lehenengoz jantzi nituenean oinak minberaturik izaten nituela.

■ Edertasuna ez al da erlatiboa?

Bai. Zaila da hura neurtzea. Egia esan, oraindik ez dakit zergatik aukeratu ninduten. Nire ustez, gizarteak, gaur egun, garrantzi handiegia ematen dio azaleko edertasunari, eta pertsonaren mamia ahazten du sarri. Argi dut bizitza ezin dela edertasunean oinarritu.

■ Atsegin duzu jendeak zuri begiratzea?

Begiratzen duenaren begien baitan dago hori. Begi onekin begiratzen badidate, bai. Modelo izateko gustatu behar zaizu jendeak begiratzea.

■ Zer moduz moldatzen dira ikasle eta modelo bizitza?

Oraingoz moldatzen dira. Nik uste dut biak batera egin ditzakedala, eta, kosta ahala kosta, biak egiten jarraituko dut, lorik egin behar ez badut ere! Ez da gauza bera arratsalde guztia ikasteko libre eduki edo lan egitera joan beharra, baina... Baditut biak egiten ari diren lagunak eta haien biderei jarraitu nahi nieke. Hurrengo urtean informatika ikasketak egiten hastea gustatuko litzaidake. Hemendik 10 urtera modelo izaten jarraitu nahiko nuke, diseinadore ezagunekin... baina argi dut hemendik 40 urtera edertasunak ihesi egingo duela eta orduan etxetik lan egin nahi nuke, informatiko moduan.

Janira Acosta



▲ pablo s. quiza

zirika



sustrai colina

«Barkatzen dizut, baina ez dut ahantziko», dio bisean bis duenarekin zein bere buruarekin ontsa gelditu nahi duenak. Ez dakit barkatzeko jaio ginen, baina ahanzten iaioak garela begi bistakoa da.

Esate baterako, zenbat aldiz idatzi dugu kleenex batean edo lurrean kausitutako zigarreta pakete batean taberna ilun baten atarian eza gututako neska xarmantaren telefono zenbakia? Eta zenbat aldiz bota dugu paper zati hori zakarren saskira mokanes arrunt bat balitz bezala? Batek daki zenbat harreman zapuztu dituen oroimenaren ganbarak. Gehiegi hain segur. Orain, alfer-alferrik da Euskal Herriaren egoera demografikoa madarikatzea Bilintxen bertso zahar

rrak kantatzen ditugun bitartean. Joanak joan, ahantziak ahantzi.

Dena den, ahanzteko orduan ez gara beti hain baldarrak izaten. Zenbaitetan biziki trebeak gure burmuinak konbentzitzen eta gure printzipioak (usu uste izan dut sobera dauzkagula eta ez dugutela hainbeste balio, baina tira...) egokitzen eta zokoratzen. Guk, «txikiaren defendatzaileok», zenbat aldiz egin diegu barre gu baino txikiagoei? Guk, «klaserik gabeko gizarte bat amesten dugun ikasleok», zenbat aldiz jarri ditugu greba egunak aste-buru eta oporren bezperan? Ohartu zaretenez, gu

Ahantziak

re herrian ahanzteak eta ez oroitzeak berdintsuak dira ardura.

Kultura hori komunikabideetatik datorkigu omen. Izan ere, albistea bizpahiru egunez da albiste, astebetez gehienez. Ondoren, egunkarietako hemerroteketan edo Miramoneko artxiboetan galtzen dira notiziak, denborak zentzua ostuko balie bezala. Badakizue, oroimena ez da saltzen.

Ahanzteak eta hastea sinonimo bihurtu diren garaiotan, Garzon eta Pumori dira gutaz oroitzen diren bakarrak. Izan ere, lege orok du bere salbuespena, maiz mingarriegia egiten bazaigu ere. Eta, ahaztu gabe, norbaitek ba al du Jokin Galarragaren berririk?